Lasarte-Oriako Udala
Zk./ Nº 2024/2387
Data / Fecha 2024/11/22
Dekretua / Decreto

**Espte. Kodea / Cód. expte.:** 2023IP890001

## ALKATETZAREN DEKRETUA

### AURREKARIAK

2024ko urriaren 9an (Alkatetzaren 2011/2024 zk.ko Dekretua), administrari laguntzaileen 13 lanposturen enplegua egonkortzeko prozesuko destinoen behin-behineko zerrenda onartu zen.

Ebazpen hori udalaren webgunean argitaratu zen urriaren 9an, eta 10 egun balioduneko epea eman zen erreklamazioak edo alegazioak aurkezteko.

Epe horretan inork ez du alegaziorik aurkeztu.

2024ko urriaren 23an, Naiara Azpiroz Lecuona hautagaiak uko egin zion hautaketa-prozesuari, izendapenaren eta kargu-hartzearen aurretik.

Azaroaren 7ko 2242/2024 Alkatetza Dekretuaren bidez, behin-behineko zerrendan Odile Artano Osa 16. hautagaia sartzea erabaki zen, 13. lanpostua betetzeko (Zerbitzu Publikoetako administrari laguntzailea), eta 10 egun balioduneko epea eman zen erreklamazioak aurkezteko.

Epe horretan inork ez du alegaziorik aurkeztu.

Administrazio Orokorreko teknikariaren txostena ikusita, non justifikatzen baita 9. hautagaiak ezin duela prozesuan jarraitu gerora sortutako arrazoiengatik, 13 administrari laguntzaile enplegua egonkortzeko prozesutik kanpo utzi behar da.

17., 18. eta 20. hautagaiek (sarrera-erregistroak: 10148, 10149 eta 9958) uko egin diote egonkortze-prozesuari, beste administrazio publiko batzuetan plaza lortu dutelako.

Horregatik, eta Epaimahai Kalifikatzaileak proposatu dituen eta destinoak epe barruan aukeratu zituzten pertsonen zerrenda ikusita, 21. hautagaia behin-behinean proposatu behar da 11. lanpostua betetzeko (Idazkaritzako administrari laguntzailea).

## DECRETO DE ALCALDÍA

### ANTECEDENTES

Con fecha 09 de octubre de 2024 (Decreto de alcaldía nº 2011/2024) se procedió a aprobar la relación provisional de destinos del proceso de Estabilización de empleo de 13 plazas de Auxiliar Administrativo/a.

Dicha resolución se publicó en la página web del ayuntamiento con fecha 9 de octubre, dando un plazo de 10 días hábiles para reclamaciones o alegaciones.

En dicho plazo ninguna candidata ha presentado alegaciones.

Con fecha 23 de octubre de 2024 la candidata Naiara Azpiroz Lecuona, presenta su renuncia al proceso de selección, antes de su nombramiento y de la toma de posesión.

Por decreto de alcaldía 2242/2024 de 7 de noviembre se resolvió incluir en la relación provisional a la candidata nº 16 Odile Artano Osa, para ocupar la plaza nº 13 (Auxiliar Administrarivo/a de Servicios Públicos), otorgando un plazo de 10 días hábiles para reclamaciones.

En dicho plazo ninguna candidata ha presentado alegaciones.

Visto el informe de la Técnico de Administración General en el que se justifica la imposibilidad de que la candidata nº 9 siga en el proceso por causas sobrevenidas, hay que proceder a la exclusión de la misma del proceso de estabilización de empleo de 13 Auxiliares Administrativos/as.

Visto que las candidatas nº 17, nº 18 y nº 20 (Registros de entrada nº 10148, 10149 y 9958) han presentado la renuncia al proceso de estabilización por haber obtenido plaza en otras administraciones públicas.

Por ello y en vista a la relación de personas propuestas por el Tribunal Calificador que presentaron la elección de destinos en plazo, hay que proponer provisionalmente a la candidata nº 21 para ocupar el puesto nº 11 (Auxiliar Administrativo/a de Secretaría).

ESKUa0e58c0b-0019-4b09-ab9e-f3dbd5ff6f87

7/1985 legearen 21. Artikuluak ematen dizkidan eskumenak erabiliz,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.- Hautatutako pertsonen eta esleitu beharreko plazen behin-behineko zerrendan sartzea Maite Ollo Rojas 21. hautagaia, Idazkaritzako administrari laguntzailearen 11. lanpostua betetzeko: lan-kontratuko langile finkoentzat gordetako lanpostua. C2 taldea. 16. lanpostu-mailako osagarria. Udalhitz 9ko ordainsari-maila, 2. hizkuntza-eskakizuna. Derrigortasun-data: 1993/03/01. Eskatutako titulazioa: oinarrizko batxilergoa edo baliokidea. % 100eko dedikazioa.

Bigarrena.- Interesdunei jakinaraztea eta iragarki-taulan eta udalaren web-orrian argitaratzea 10 egun balioduneko epean, erreklamazioak edo alegazioak aurkezteko, 12. oinarri orokorraren arabera.

Hala ebazten eta sinatzen dut, Lasarte-Orian sinadura digitalaren datan.

En virtud de las competencias que me confiere el art. 21 de la ley 7/1985,

RESUELVO:

Primero.- Incluir en la relación provisional de personas seleccionadas y plazas objeto de adjudicación a la candidata nº 21, Maite Ollo Rojas para ocupar la plaza nº 11 Auxiliar administrativo/a de Secretaría: Puesto de trabajo reservado a personal laboral fijo. Grupo C2. Nivel complemento de destino 16. Nivel retributivo Udalhitz 9, Perfil lingüístico 2. Fecha de preceptividad 01/03/1993. Titulación exigida: Bachiller elemental o equivalente. Dedicación 100%.

Segundo.- Notificar a los interesados y publicar en el Tablón de anuncios y en la página web del ayuntamiento por un plazo de 10 días hábiles para reclamaciones o alegaciones, con arreglo a la base general 12ª.

Lo que resuelvo y firmo, en Lasarte-Oria a fecha de la firma digital.

Kale Nagusia 22, 20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa) | ✆ 0034 943 376055 | ✉udala@lasarte-oria.eus | IFZ/NIF P2009500F

EKS | CSV: ESKUa0e58c0b-0019-4b09-ab9e-f3dbd5ff6f87
Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://uzt.gipuzkoa.eus?De=08310
Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://uzt.gipuzkoa.eus?De=08310